

Ezpalak

JON TORNER

Pedro Iturralde itsasgizonari buruzko erakusketa Donostian



1949AN jaio zen Pedro Iturralde itsasgizon eta kartografoa, Lizartzan. 1489an Cascaisco portutik (Portugal) Ozeano Atlantikoaren

iparralderantz irten zen, Bizkaiko Golkoko arrantzaleak zeuden lekura. Bidaiaren helburua Bizkaiko Golkoko arrantzaleek zeharkatzen zituzten lurak eta kalak ezagutzeko eta kartografiatzeko zen. Espedizio gorabeheratsu hori du ardatz Pablo Donezar artista donostiarrak Koldo Mitxelena kulturunean paratu duen *Iturralde eta beste bidaiak* izeneko erakusketak. Denboraren iraganaz mintzo diren lan grafikoak, ikusentzunezkoak eta instalazio bat bildu ditu Donezarrek. Erakusketa apirilaren 4ra arte izango da ikusgai.

Nafarroako Gobernuak kudeatuko du Huarte zentroa

HUARTE Arte Garaikideko Zentroaren finantzaketaren inguruko auzia konponbidean da. Nafarroako Gobernuak eta Uharteko Udalak akordioa lortu dute. Aurreantzean Gobernuak kudeatuko du zentroa. Finantzaketa bere gain hartuko du, eta kolokan zeuden lanpostuak ez direla desagertuko esan du.

Joxean Arbelaitz Mitxelena kultur eragile errenteriarra hil zen pasa den astean. Ikastolen Federazioan lan handia egin zuen eta Donostiako Santo Tomas Lizeoan filosofia irakasle izan zen. Errenteriako kultur mugimendua eta euskara indartu nahian lanean aritu zen urte luzez. Donostiako Kultura zinegotzia izan zen 90eko hamarkadan, eta Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Sorkuntza eta Hedapen Saileko zuzendari kargua bete zuen lau urtez, 2001etik 2005era.

Olaf de Fleur Johannesson islandiarrak zuzendutako *The Amazing Truth about Queen Raquela* (Raquela erreginari buruzko egia harrigarria) filmak irabazi du Bilboko Zinegoak jaialdiko fikziozko film luze onenaren saria. Filipinetan jaiotako transexual baten bizitza du ardatz pelikula horrek. Bestetik, dokumentalik onenaren saria Gustav Hofer eta Luca Ragazzik zuzendutako *Improvvisamente, l'inverno scorso* (Ezusteaz, iragan negua) filmak irabazi du.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Luis de Pablo konpositorearen (Bilbo, 1930) *Danzas secretas* eta *Fronoso misterio* pieza garaikideak jaso ditu *Luis de Pablo, 1930* izeneko CDan. Iazko apirilean grabatu zituen bi obrak, Arturo Tamayo-ren zuzendaritzapean.

Txalo Produzioak konpainiak *Abuntza edo Nor da Silvia?* antzezlanaren estreinatua pasa den ostiralean Donostian. Edward Albee antzerkigile estatubatuarren tragikomedia Carlos Zabalak ekarri du euskarara. Silvia izeneko ahuntzaz maiteminduko den arkitektoaren istorioa kontatzen du.

● **Iñaki Ortiz de Villalba Betagarri taldeko abeslariak Aizu! aldizkarian:** «Hori [gure disko bat manta baten gainean ikuste] berdin zait, bost axola. Gainera, horrek esan nahi du diskoak arrakasta daukala. Gu ez gara salmentatik bizi, baina egileek zerbait kobratu behar dute abestiak egiteagatik eta zuzenean jotzeagatik. Gu kontzertuei esker bizi gara, eta prezio ezberdinak ditugu, kontzertua eman behar den lekuaren arabera (...) Nik disko bat grabatzeko dirua jasoko banu, itzuli egingo nioke eman didanari. Euskal kultura munduan zabaltzeko aitzakian, ezin dira diskoak grabatzeko diru-laguntzak eta salmentatik ateratako sos guztiak poltsikoratu».

● **Xabier Paya bertsolariak Berrian:** «Artikulu honen gaia ez da bat-bateko inprobisazioa grabatzearen funtzio eta interes soziala. Hori argi dago berez, bestela ez lirakeke egongo webgune bi zeregin horretan. Bai, bertsoa.com bertso plaza digitala eta bertso plaza.tv

bertso plaza. Lehenengoa Arinaizela ekimenaren proiektua da; bigarrena, Bertsozale Elkartearena (...) Ez dakit bertsolariaren fenomenoaren funtzio bera edo antzeko samarra betetzen duten bi webgune izateko beste handitu den azken urteetan. Ez dakit gune biren existentziak antzekotasunik duen habe-ek auzi zaharren sindromearekin (ez dakit, izan ere, Lankuk, Bertsozale Elkarteak sortutako zerbitzuak, 2008ko bertsoaldi onenen antologia bertso plaza digitalarekin kaleratu baitzuen iaz, ez elkartekoarekin)».

● **Antonio Lauzirika konpositoreak Garan:** «Konpositoreok dilema bitxia dugu. Merkatuak baldintzatzen gaitu gauza batzuk egin eta asko saldu, ala bestelako gauza batzuk egin eta gutxi saltzera. Musika garaikidearen esparruan lan egiten dugun konpositoreok merkaturik apenas sortzen dugunez, gutako gehienok entzun nahiko genukeen musika konposatzen dugu».